

# ARGAZKILARITZA DIGITALA IKASTAROA: LEHEN URRATSAK EIBAR 2019      urria-azaroa (astelehen eta asteazkenetan)



Argazkia: Virginia Lizarralde / Argazkilaritza digitala ikastaroa. Arrate - Eibar 2017

## AURKEZPENA

Argazkilaritza digitala oso zabalduta dago; eskaintza hobea da egunetik egunera, eta baita eskuragarriagoa ere. Ikastaro honetan argazkilaritzaren oinarrizko kontzeptuak eta irudi digitalaren ezaugarriak aurkeztuko dira.

Argazkilaritza digitalaren inguruko kontzeptuak irakatsiko dira, gure kamerak ezagutzeko eta argazki hobek egiteko: paisaien argazkiak, erreportajeak, erretratuak... Hauek landuko ditugu: abiadurak eta diafragmak, eremu-sakonera, foku-distantziak, argiaren neurketak, histogramak, zuri-balantzeak, konposizioa, bereizmena, sentsoreen tamainak eta artxiboen formatuak (raw, tif, jpg...).

Argazkiak kameretan, tabletetan, sakeleko telefonoetan eta ordenagailuetan ikusten ditugu. Gailu horiek erabiltzen ditugu irudiak deskargatzeko, editatzeko (moldaketak egiteko), sailkatzeko eta aurkezpenak egiteko musikarekin, posta elektronikoz bidaltzeko, blogetan argitaratzeko. Batzuetan, irudi batzuk aukeratu eta paperean ere inprimatzen ditugu, erakusketak egiten ditugu, albumak eta formatu handiko kartelak sortzen ditugu gure argazkirik onenekin.

# **PROGRAMA**

## **1. Sarrera**

- Argazkilaritzaren historia laburra.
- Irudi digitala: oinarrizko kontzeptuak.
- Argazkilaritzaren merkatua: kamerak eta osagarriak.
- Argazki-kamera motak (konpaktuak, brigde kamerak, evil kamerak, reflexak).
- Nola garbitu eta zaindu kamera.

## **2. Objektiboak. Foku-distantzia**

- Normalak, angeluarrak, teleobjektiboak.
- Zoom optikoa eta digitala.

## **3. Kamera nola erabili**

Sentsoreak, memoria-txartelak (argazki kopurua, tamaina, bereizmena...) eta bateriak. Atzemate-formatua: JPEG eta RAW.

Automatismoak eta programak, zuri-balantzea, argia nola neurtu, fokuratzea, abiadura, diafragma, ISO sentikortasuna, flasha eta beste baliagarritasunak.

## **4. Argazkien konposizioa. Ikusteko artea**

- Paisaia naturalen argazkiak, ekintza-erreportajeak, erretratuak, natura hilak...

## **5. Kameratik ordenagailura**

- Irudiak deskargatzea, berrikustea, gordetzea eta zabaltzea.
- Oinarrizko tresna informatikoak (kameraren programak, software librea).
- Irudiaren manipulazio oinarrizkoa: histograma, moztea, fokuratzea, argazkiak berrizendatzea.
- Segurtasun-kopiak.

## **6. Irudien zabalkundea**

- Irudi digitalak prestatzea. Tamainak eta formatuak webean argitaratzeko, e-mailez bidaltzeko, etxean eta laborategi fotografikoetan inprimatzeko, oinarrizko ikus-entzunezkoak egiteko.
- Baliabide eta helbide interesgarriak webean.

## **Praktikak**

Ikastaro amaierako erakusketa.